

GRADUKO UNIBERTSITATE IKASKETETAN KREDITUAK AITORTZEA ETA TRANSFERITZEA ETA IRAKASGAIEN AITORTZEA (BALIOZKOTZEA) 2022-23 IKASTURTEA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea honetaz dauzkan arauak jasota daude, alde batetik, Graduko ikasketetan kredituak transferitu eta onartzeko arautegian (Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartua eta 2012ko ekainaren 19ko EHAAn argitaratua, 119. zk.) eta, bestetik, unibertsitateak ikasturtesko argitaratzen duen gestio arautegian. Kredituak transferitzeari buruzko arautegiko 3. artikulua araberan, kredituak aitortzea ikasle batek ikasketa ofizialetan (amaituak edo amaitu gabekak) eskuratutako kredituak onartzea da. Ikasketa horiek uneko ikasketen bestelakoak izango dira eta UPV/EHU edo beste Unibertsitate batean (estatukoa edo atzerrikoa) eginak. Aitortutako kredituak UPV/EHU matrikulatutako titulu ofiziala lortzeko egindako kreditutzat hartuko dira.

Beste ikasketa batzuetan lortutako kredituen aitortzeari dagokienez, arautegiak dio 2.3 artikuluan ezen *“Ikastegietako akademia-batzordei dagokienez, batzorde bakoitzak bere ikastegian ikasketak baliozkotzeko aurkeztutako eskaerak ebatziko ditu, alde aurretik zerikusia duten sailen txostena jasota. Sailek txostenak egiteko sistema egokia arautuko dute, araudian ezarritako baldintzak eta epeak aintzat hartuta”*

BALIOZKOTZE-ESKAERA 2022-2023 IKASTURTEA

-Eskabidea Fakultatearen webgunean dagoen **aplikazio informatiko baten bidez baino ez da egingo** (Idazkaritza-Tramiteak-Baliozkotzeak)

-**Epea**: 2022ko irailaren 13tik 16ra. Epea kanpo edo dokumentazioa osatu gabe aurkeztu diren eskabideak ez dira onartuko.

-**Lekua**: <https://www.ehu.es/eu/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea/baliozkotzeak>

-**Eskatutako dokumentazioa**:

a) Egindako ikasgaien programa ofizialak, konpetentziak, eduki teorikoak eta praktikoak eta edukien ECTS kredituen banaketa jasotzen dituztenak. Lehentasunezko formatua ikasgaiaren programarako sarbidea ematen duen jatorrizko unibertsitatearen web orri ofizialaren esteka da. Halakorik ezean, zigilu ofiziala duen pdf dokumentu bat erantsiko da. UPV/EHU ikasketak egin dituzten ikasleek ez dute dokumentazio hori sartu beharrik.

b) Ziurtagiri akademikoa pertsonala (originala*) , jatorrizko unibertsitatean lortutako kalifikazioekin.

-**Prozedura**:

1. Bete ezazu eskabidea aplikazioan.
2. Deskargatu eta sinatu eskaera amaitzean sortzen den dokumentua.
3. Bidali sinatutako dokumentua zure ikasle.ehu posta-kontutik helbide honetara: tecnica.fme@ehu.es

(*) Aplikazioan aurkeztutako ziurtagiri akademikoa pertsonalak kode elektronikorik ez badu, jatorrizkoa Idazkaritzan entregatu behar da, aurrez hitzordua eskatuta, helbilde honetan: secretaria.fme@ehu.es